

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

46/2019 Mozioa, azaroaren 27koa, auto pribatuaren erabilera partekatua sustatzeko eta bultzatzeko hainbat sistema-plataforma digital aztertzea eskatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

46/2019 Mozioa, azaroaren 27koa, auto pribatuaren erabilera partekatua sustatzeko eta bultzatzeko hainbat sistema-plataforma digital aztertzea eskatzeko

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari eskatzen diote azter ditzala, Arabako Mugikortasun Agintaritzaren barruan, gaur egun hainbat euskal erakundek auto pribatuaren erabilera partekatua sustatzeko eta bultzatzeko dagoeneko eskaintzen dituzten hainbat sistema-plataforma digital, eta azter dezala, hala bada-gokio, Arabako Lurralde Historikoan plataforma berriak sustatzeko egokitasuna.

2. Arabako Batzar Nagusiek Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru-diputatuari eskatzen diote agerraldia egin dezala 2020ko lehenengo seihilekoan, azterlan horren ondorioak azaltzeko; era berean, hala badagokio, www.araba.eus webgunean espazio bat egokitzea ere eskatzen diote, "Araban autoa partekatzea" ahalbidetzeko eta sustatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA